

Arretxek gordintasunaren alde egin du 'Hutsaren itzalak' nobelan

Toure detektibe-igarlearen hirugarren lana kaleratu berri du Basauriko idazleak Erein argitaletxean

✎ Juan G. Andrés
 📷 Javi Colmenero

DONOSTIA - 19 kamera eta 612 euro nobelen ostean, Toure detektibe-igarlearen sagarekin jarraitu du Jon Arretxe (Basauri, 1963) idazleak. Lehen lana dokumental modukoa izan zen, pertsonaia zein San Frantzisko auzoari buruzkoa, eta, bigarrenean, umorearen bidea hartu zuen, "umore afrikarra eta pikaeskaren bidea", hain zuzen ere. *Hutsaren itzalak* (Erein) azken liburuan, baina, gordintasunaren alde egin du bizkaitarrak. Bere ustez, hirugarren eleberria "gogorrena, gordinena eta beltzena da". "Trama sakonagoa da eta hobeto eraikita dago, erritmo handiagoaz", horietarako Arretxeren hitzak.

Bilboko San Frantzisko auzoan bizirauten duen Burkina Fasoko etorkinak alabaren deia jaso du, Parisetik

Hendaiara joango baita egun batzuk elkarrekin pasatzeko asmoz. Paperik ezaren arazoak saihesteko, Tourek Sa Kene amorantea bidali du geltokira alabaren bila, baina Sira ez da agertuko. Horrela hasten da *Hutsaren itzalak*, gaztelaniaz *Sombras de la nada* izenburupean argitaratu dena.


Atzoko aurkezpenean Jon Arretxek nabarmendu zuenez, emakumezkoek pisu handia hartu dute narrazioan. Izan ere, lau pertsonaia nagusi daude: alaba, amorantea, Nigeriako prostituta bat eta Toureren emaztea, Burkina Fasoren zain dagoena. Idazleak lehen eta hirugarren pertsonak nahasi ditu, bai eta orainaldi eta iragana ere, "erritmoaren alde egiteko asmoz". Kokapenari dagokionez, San Frantzisko da nagusi, baina Hendai, Baiona eta Iruneko San Migel auzoak ere ageri dira.

Hainbat pasartetan umore zertzeladak sartu baditu ere, nobela berrian "trama nagusitu da". Arretxek Saharaz hegoaldeko etorkinen egoera gordina kontatu, emakume trafikoa iruruz idatzi eta "jende behartsuenaren istorioak" ekarri ditu gogora. Tou-

rek, gainera, hiru krisiri egin beharko dizkio aurre: mundu guztiak pairatzen duen krisi ekonomikoari, San Fran-tzisko auzoarenari eta baita bere krisi pertsonalari ere, eskrupulurik gabeko abokatu batek engainatu duelako eta Ertzaintzak xantaia egin nahi diolako meskitan poliziaren satorra izateko. Horiek horrela, "kritika soziala berez ateratzen da, nahitaez", idazlearen iritziz.

"BARRU-BARRUTIK" Tourearen aurreko lanak bezalaxe, San Frantziskon idatzi du *Hutsaren itzalak*, Bilboko liburu-saltzaile batek utzitako etxean. "Auzokoekin dudak erlazioa gero eta sakonagoa da, lagun koadrila egin dut eta etxean bezala sentitzen naiz", aipatu zuen. Bertako elkarteekin aritua da, besteak beste, Askabiderekin, kalean ibiltzen diren babesgabeko prostitutei laguntza ematen diena. Gau batean edo bestean, gainera, haiekin joan da janaria eta edari beroa ematera. Eta gauzak "barru-barrutik" ikustea eta zuzenean dokumentatu ahal izatea oso mesedegarria suertatu zaio.

Etorkizunean ere, Toure pertsonaiari helduko dio Arretxek. "Oso gus-



Jon Arretxe, atzo Donostian, gaztelaniazko eta euskarazko nobelekin.

tura nago berarekin eta uste dut irakurleek ere maite dutela, hala esan didatelako idazten dizkidaten posta elektronikoa. Nobela honetan

gorriak ikusiko ditu eta beharbada, jendea haserretuko egingo zait, baina nire asmoa sagarakin jarraitzea da", bukatu zuen. ●